

1. FITXA. Mugikortasun elektrikoari lotutako pizgarrien programa (MOVES III) Europako Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan

Norentzat: Edozein dimentsiotako udalerriak

Sartzeko esteka: Energiaren Euskal Erakundea ([EVE](#)) // 2021/09/28an gaitutako leihatila

Eremuak: Hiri garraioa eta mugikortasuna, digitalizazioa eta ingurumena

Zenbatekoa: 16.378.574,63 €

Aurkezpen amaiera data: 2024/07/31

Laburpena

Europako erakunde eskudunek onartutako Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planean ezarritako helburuak aurrez betetzen laguntzeko, **ibilgailu elektrikoaren erosketara** zein **kargatzeko azpiegitura** egokia sustatzea eta mugikortasunaren elektrifikazioa sustatuz, garraioaren sektorea «deskarbonizatzen» laguntzea, 2020-2021 Energia eta Klimaren Plan Nazional Integratuan eta Atmosferaren Kutsaduraren Kontrolerako Programa nazionalen ezarritako helburuak lortzeko.

Informazio gehiago [Oinarrien dokumentuan](#) eta 946-620-600 telefonoan.

****Kargatzeko azpiegitura ezartzeko kasuan, toki administrazioentzat (jarduera ekonomikorik gabe): diruz lagun daitekeen kostuaren %70; kostu horren %80ra heda daiteke, 5.000 biztanletik beherako udalerrietan egotea justifikatzen den jarduketetan.**

Onuradunak

Honako hauek izango dira onuradunak, baldin eta zerga-egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) badute:

1. Merkatuan ondasunak edota zerbitzuak eskaintzeko jarduera ekonomikoetan diharduten pertsona fisikoak.
2. Aurreko paragrafoan jaso gabeko adin nagusiko pertsona fisikoak eta desgaitasuna duten pertsonak.
3. Jabeen erkidegoak.
4. Identifikazio fiskaleko zenbakia (IFZ) A, B, C, D, E, F, G, J, R edo W hizkiekin hasten duten pertsona juridikoak. Industrialdeak Kontserbatzeko Erakundeak eta Eraldaketarako Nekazaritza Sozietateak ere hautagarri izango dira, baldin eta IFK V hizkiz hasten badute.

Onuradun izango dira, halaber, aurreko paragrafoko baldintzak betetzen dituzten eta zerga-egoitza EAEn ez duten pertsona juridiko hauek:

- ✓ EAEn (i) jarduerak aurrera eraman, (ii) egoitza bat izan eta (iii) plantillaren zati bat mantentzen dutenak; hori guztia, bi urtez gutxienez, deialdi hau argitaratzen den egunetik atzera kontatzen hasita.
- ✓ Aurreko paragrafoan deskribatutako baldintzak bete ez arren, 2. Pizgarri-programan – Ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegituren ezarpena - deskribatutakoaren arabera diruz lagun daitekeen inbertsioa egingo duten pertsonak, baldin eta inbertsio horrek EAeko lurralde barruko energia kontsumoan zein petroliorekiko mendekotasunaren murrizketan eragina izango badu.

5. Toki erakundeak eta edozein administrazio publikoren sektore publiko instituzionala, baldin eta merkatuan ondasunak eta zerbitzuak eskaintzeko jarduera ekonomikoetan jarduten ez badute; kasu horretan, 4. epigrafean barne hartzen direla ulertuko da.

Jarduera-lerroak

Bi pizgarri-programa:

- **1. Pizgarri-programa:** Ibilgailu elektriko «entxufagarriak» eta erregai-pila bidezkoak erostea.
- **2. Pizgarri-programa:** **Ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegiturak ezartzea.**

1. Pizgarri-programa: Ibilgailu elektriko «entxufagarriak» eta erregai-pila bidezkoak erostea.

Diruz lagundu ahal izango da ibilgailu berriak **zuzenean edo leasing finantzazio zein «renting» errentamendu bidez (leasing operatiboa ere deitua) eskuratzea**, baldin eta Espainian laguntzaren azken hartzailearen izenean lehen aldiz matrikulatuta badaude; «renting» kasuetan izan ezik, horietan «renting» enpresaren izenean matrikulatuta egon baitaitezke.

Laguntza jaso dezaketen ibilgailuek honako kategoria batekoak izan behar dute:

- a) **M1 automobilak:** gutxienez lau gurpil dituzten ibilgailu motordunak, bidaiariak garraiatzeko diseinatu eta fabrikatuak, gidariaren eserlekuaz gain, gehienez ere zortzi plaza dituztenak.
- b) **N1 furgoneta edo kamioi arinak:** batez ere salgaiak garraiatzeko sortu eta fabrikatutako ibilgailu motordunak, teknikoki onargarria den karga-masa maximoa (MMTA) 3,5 tonatik gorakoa ez dutenak.
- c) **L6e kuadriziklo arinak:** baterien masa barne hartu gabe, hutsik 350 kg-ko edo gutxiagoko masa duten kuadriziklo arinak, fabrikazioz, gehieneko abiadura 45 km/h-koa edo txikiagoa eta gehieneko potentzia 4 kW-koa edo baxuagoa dutenak.
- d) **L7e kuadriziklo astunak:** lau gurpileko ibilgailuak, martxan (baterien pisua barne hartu gabe) 450 kg-ko edo gutxiagoko masa dutenak bidaiariaren garraioaren kasuan, eta 600 kg-ko edo gutxiagoko masa dutenak salgaien garraioaren kasuan, eta kuadriziklo arin gisa sailkatu ezin direnak.
- e) **L3e, L4e eta L5e motozikletak:** bi gurpileko ibilgailuak edo ibilgailuaren batez besteko luzetarako ardatzarekiko hiru gurpil simetriko edo asimetriko dituztenak, 50 cm³-tik gorakoak edo 50 km/h-tik gorako abiadurakoak, eta ibilgailuen pisu gordina tona batekoa baino handiagoa ez bada.

Pizgarriz lagun daitezkeen ibilgailuen modeloak IDAEn Ibilgailuen Basean agertu behar dute, (<http://coches.idae.es/base-datos/vehiculos-elegibles-programa-MOVES>).

2. Pizgarri-programa: Ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegiturak ezartzea.

Kargatzeko azpiegituraren erabilerak hauek izan ahalko dira:

- Erabilera pribatua bizitegi-sektorean, familia bakarreko etxebizitzak barne.
- Erabilera publikoa bizitegi bestelako sektoreetan (aparkaleku publikoak, hotelak, merkataritza-zentroak, unibertsitateak, ospitaleak, industrialdeak, kirol-zentroak, etab.)
- Erabilera pribatua enpresa pribatu eta publikoen aparkalekuetan, beren flotari zerbitzua emateko.
- Erabilera publikoa enpresa pribatu eta publikoen aparkalekuetan, langileei eta bezeroei zerbitzua emateko.
- Erabilera publikoa bide publikoan, hiriko eta hiriarteko bide-ardatzak.
- Erabilera publikoa errepide-sarean; zerbitzuguneak eta gasolindegia kargatzeko azpiegitura bereziki interesgarria izango da.

Gastuetarako aldi hautagarria

Onuradun motaren arabera:

- 1, 2 eta 3 motako onuradunak: 2021/04/10etik 2024/07/31ra.
- Jarduera ekonomikoa duten 4 eta 5 motako onuradunak: erregistro-dataren ondoren (eragin sustatzailea) eta 2024/07/31ra arte egiten diren jarduketak soilik.
- Jarduera ekonomikorik ez duten 5 motako onuradunak: 2021/04/10etik 2024/07/31ra arte.

Laguntzen zenbatekoa eta mota

1. Pizgarri-programa: Ibilgailu elektriko «entxufagarriak» eta erregai-pila bidezkoak erostea.

→ Laguntza finkoko zenbateko hauek ezarri dira 4 motako onuradun (pertsona juridiko) bakoitzarentzat, (betiere ibilgailuaren salmenta-prezioaren muga gainditzen ez bada):

Motorizazioa	Kategoria	Funtzionamendu elektriko moduan duen autonomia (km)	Ibilgailuaren salmenta-prezioaren muga (€) BEZ edo IGC baino lehen	Diru-laguntza (€)			
				Txatartzerik gabe		Txatartzearekin	
				ETE	Enpresa handia	ETE	Enpresa handia
Erregai-pila (FCV, FCHV)	M1	-	-	2.900	2.200	4.000	3.000
PHEV, EREV, BEV		30 baino handiagoa edo berdina eta 90 baino txikiagoa	45.000 (53.000 8 edo 9 plazako BEV ibilgailuentzat)	1.700	1.600	2.300	2.200
		90 baino handiagoa edo berdina		2.900	2.200	4.000	3.000
PHEV, EREV, BEV, erregai-pila	N1	30 baino handiagoa edo berdina	-	3.600	2.900	5.000	4.000
	L6e			800		1.000	
	L7e			1.200		1.500	
	L3e, L4e, L5e, P≥3Kw	70 baino handiagoa edo berdina	10.000	750	700	950	900

Laguntzaren muga berrogeita hamar ibilgailukoa izango da azken hartzaile eta urte bakoitzeko; muga hori kalkulatzeko erreferentzia gisa eskabidea aurkeztu den data hartuko da.

→ Laguntza finkoko zenbateko hauek ezarri dira **1, 2, 3 eta 5 motako onuradun bakoitzarentzat**, (betiere ibilgailuaren salmenta-prezioaren muga gainditzen ez bada):

Motorizazioa	Kategoria	Funtzionamendu elektriko moduan duen autonomia (km), WLTPren arabera	Ibilgailuaren salmenta-prezioaren muga (€) BEZ edo IGC baino lehen	Diru-laguntza (€)	
				Txatartzerik gabe	Txatartzearekin
Erregai-pila (FCV, FCHV)	M1	-	-	4.500	7.000
PHEV, EREV, BEV		30 baino handiagoa edo berdina eta 90 baino txikiagoa	45.000 (53.000 8 edo 9 plazako BEV ibilgailuentzat)	2.500	5.000
		90 baino handiagoa edo berdina		4.500	7.000
PHEV, EREV, BEV, erregai-pila	N1	30 baino handiagoa edo berdina	-	7.000	9.000
BEV	L6e	-	-	1.400	1.600
	L7e			1.800	2.000
	L3e, L4e, L5e, P≥3Kw	70 baino handiagoa edo berdina	10.000	1.100	1.300

Zenbateko horiek honako kasu hauetan handitu ahal izango dira (metatu gabe):

- Mugikortasuna murrizten duen desgaitasuna duten pertsona fisikoen M1 kategoriako ibilgailuentzat eta ibilgailu egokituentzat edo gidatzeko egokitzen direnentzat, baldin eta egokitzapena erositako ibilgailuaren fitxa teknikoan jasota badago; kasu honetan, laguntzaren zenbatekoa %10 handituko da. Baita N1 kategoriako ibilgailuentzat ere, eta mugikortasuna murriztuen duen desgaitasuna duten pertsona autonomoentzat.
- **5.000 biztanletik beherako udalerrietako herritarrei %10 gehituko zaie laguntza, baldin eta bertan erroldatuta badaude eta errolda hori gutxienez bi urtez mantentzen badute, eskaera erregistratzen denetik aurrera.**
- Taxi erabilera emango zaien M1 ibilgailuentzat, azken hartzailea autonomoa bada, laguntzaren %10eko laguntza gehigarria emango da.
- Era berean, Gidaridun Garraiorako Ibilgailu-zerbitzuetara bideratzen diren M1 ibilgailuek %10eko laguntza gehigarria izango dute.

Laguntzen muga honakoa izango da:

- 1 motako onuradunentzat: *Minimis* Araudian ezarritakoa.
- 2 motako onuradunentzat: ibilgailu bat azken onuradun eta deialdi bakoitzeko.
- **3 eta 5 motako onuradunentzat: 50 ibilgailu azken onuradun eta urte bakoitzeko.**

2. Pizgarri-programa: Ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegiturak ezartzea.

→ 1, 2, 3 eta 5 motako onuradunak (**jarduera ekonomikorik gabe**): diruz lagun daitekeen kostuaren %70; kostu horren %80ra heda daiteke **5.000 biztanletik beherako udalerrietan** egotea justifikatzen duten jarduketetan.

- **Jarduera ekonomikoa duten 4 eta 5 motako onuradunak: diruz lagundu daitezkeen kostuen %40**, baldin eta kargatzeko azpiegitura sarbide publikokoa bada eta ≥ 50 kW-ko potentzia badu, eta **5.000 biztanletik beherako udalerri batean** badago; gainerako eremuetan, diruz lagundu daitezkeen kostuen %35era murriztuko da laguntza. Ehuneko horiek 10 ehuneko handitu ahal izango dira enpresa ertainen kasuan, eta 20 ehuneko enpresa txikien kasuan.
- **Jarduera ekonomikoa duten 4 eta 5 motako onuradunak: diruz lagundu daitezkeen kostuen %30**, baldin eta kargatzeko azpiegitura erabilera pribatukoa edo sarbide publikokoa bada, baina 50 kW-tik beherako potentziarekin. Laguntza %10 handitu ahal izango da **5.000 biztanletik beherako udalerrietan** egindako inbertsioen kasuan.

Azken hartzaileak (2.1 oinarria)	Laguntza (kostu subentzionagarriaren %)	
	Kokaleku orokorra	Udalerriak <5.000 biztanle
Autonomoak, partikularrak, jabe-erkidegoak eta jarduera ekonomikoki qabeko administrazioak	% 70	% 80
Jarduera ekonomikoa, sarbide publikoko kargatze-puntua eta $P \geq 50$ kW duten enpresa eta erakunde publikoak	% 20 (% 40 enpresa ertaina) (% 50 enpresa txikia)	
Jarduera ekonomikoa, sarbide pribatu edo publikoko kargatze-puntua eta $P \geq 50$ kW duten enpresa eta erakunde publikoak	% 20 (% 30 enpresa txiki eta ertainak)	% 20 (enpresa txiki eta ertainak soilik)
Beren laguntza-eskaera minimis erregimenera biltzea, sarbide publikoko kargatze-aukera ezartzea eta $P \geq 50$ kW izatea aukeratzen duten enpresa txiki eta ertainak	% 45 enpresa ertainak % 55 enpresa txikiak	% 50 enpresa ertainak % 60 enpresa txikiak

Laguntzaren muga: 800.000 € espediente bakoitzeko, a) motako azken hartzaileen kasuan izan ezik; horiek aplikagarri zaien Europako araudiaren eskatzaile bakoitzeko muga izango dute, eta b) motako azken hartzaileen kasuan, espediente bakoitzeko 5.000 €ko muga izango dute.

Ezin izango zaio inoiz 2,5 milioi euro baino gehiago eman azken hartzaile berari, dagokion laguntzaren indarraldian.